

BIDEGILEAK

LIBURUKIAREN AURKEZPENEAN

BIDEGILEAK LIBURUKIA AURKEZTEAN

Egoitza, 93.10.28

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Mari Karmen Garmendia andere agurgarria,
Euskaltzainkide, urgazle eta euskaltzale jaun-andereak.
Ongi etorri denoi.

Egun aurkezten ditugu lau-liburutxo. Eta lau liburu horiek gure lehenbiziko lau euskaltzainei buruz eginak dira. Duela hirurogeita hamabost urte, beraz, hasi zen Euskaltzaindia lau gizon horiekin, errana baita, R. M. Azkue, A. Kanpion, L. Eleizalde eta J. Urkixorekin. Eta hain zuzen ireki baitugu gure urtea joan den urriaren lehenean Oñatin; segitzen dugu, egun, presentapen honekin. Hemen eskerronezko hitzak nahi dizkizut erran, zuri bereziki Mari Karmen Garmendia anderea. Erabaki duzu, hain zuzen, sorta honetan, *Bidegileak* deitzen den sorta honetan, gure lehenbiziko lau euskaltzainen bizia agertzea. Zure emaitza da, Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiaren emaitza. Eta guretzat pozgarri da hori. Ikusten baitugu, alde batetik eta hori argi eta garbi ikusi da Oñatin, gure agintarien laguntza, gure agintarien sostengua badugula. Eta hemen bereziki, sorta honenkin, hobeki agertzen da ere konkretuki nola laguntzen gaituen Eusko Jaurlearitzak. Beraz, otoi, zuri nire eskerrik beroenak, eta otoi ere emazkiozu Ardantza lehendakariari.

* * *

En dos palabras quiero decir que lo que acabo de expresar son palabras de agradecimiento para con la Sra. Mari Karmen Garmendia, porque ha tenido la idea de sacar a la luz, pues, la vida de los cuatro primeros académicos o euskaltzaines, que son R. M. Azkue, A. Kanpion, L. Eleizalde y J. Urquijo. Fueron los primeros nombrados en septiembre de 1918, es decir, hace 75 años. Lo que hemos visto en Oñati cuando hemos empezado este año —75 aniversario de la fundación de Euskaltzaindia— es que tenemos apoyo de las personas que cuentan en este País, es decir, de los dos gobiernos y las tres diputaciones. Y quiero agradecer especialmente a la Sra. Mari Karmen Garmendia este hecho concreto de publicar esas vidas de los cuatro primeros euskaltzaines o académicos. Y fuera de esto, pues, cedo en primer lugar la palabra a D. Jose Antonio Arana Martija.

BIDEGILEAK LIBURUKIAREN AURKEZPENEAN:

Azkue eta Urkixo

Egoitza, 1993.10.28

Jose Antonio Arana Martija


Bidegileak izeneko bilduma laugarren laukotearekin bukaturik eman behar genuela eta hara non Hizkutz Politkarako Idazkaritza Nagusiak ematen digun bosgarrenarekin poztasun eta atsegina. Euskaltzaindiak 75 urte betetzen ditueanean hemen ditugu eskuartean 1918an izendaturiko lehen lau euskaltzainen biografia laburrak. Aurkezpen hau egiterakoan Azkue eta Urkixoren aipamena egitea dagokit, biak bizkaitarrak, eta bikiak, Mitxelenaen esanetan.

Ez nuke nik horrenbeste esango. Lekeition 1864an jaio zen Azkue, Deustuan 1871an jaio zen Urkixo baino zazpi urte zaharragoa zen; eta heriotzea orduan gazteenak aurrea hartu zion 1950ean hurrengo urtean hilko zen zaharragoari. Apaiza zen lekeitiarra eta abokatua deustuarra. Karlista sutsua azken hau eta karlisten girotik, beste asko bezala, nolabaiteko abertzaletasunera iragana edo bihurtua bestea. Bibliomanoa, liburuak helburutzat hartzen zituena Urkixo, euskara aztertzeke eta ikertzeke erabiltzen zituena Azkue. Gogora dezagun hiztegirako arakatu ondoren Materre-ren ale bat eman ziola opari gisa Azkuek adiskideari. Euskaldun berria, aberats-kumea, zen Urkixo eta jatorriz euskaldun sendoa Azkue. Erabat xenofiloa deustuarra eta nolabait xenofoboa lekeitiarra. Euskara barne muintetik maite eta aztertzen zuena Azkue eta kanpotik eta kanpoko hizkuntzalarien ildotik ikertzen zuena Urkixo. Baina sarri askotan gertatzen den bezala, muturrak borobilean elkartzen dira eta euskararen esparru borobil hori noraino hedatu eta bilakatu zuten bi pertsona horiek sinestezina da.

Euskaltzaindiaren sortzean jarri zitzaizkion helburuetan ados zeuden Azkue eta Urkixo, baten izan ezik: euskara batuaren arazoan. Beharrezkotzat jotzen zuen Azkuek, idazterakoan hizkuntza bakarra ezinbestekoa zela; Urkixok, ostera, laborategiko hizkera asmatuko zenaren beldurra agertzen zuen. Azkuek *Gipuzkera osotua* eman zigan heinean, euskalki klasikoak mantentzearen alde zegoen Urkixo. Aramaio, Billabona eta Urrizako neskameak zituen etxean eta bakoitzak bere euskalkian berba egiten zion, inoiz hizkera batu batera heldu gabe. Euskaraz gutxi idazten zuen Urkixorentzat ez zen hain beharrezkoa euskara batu hori. Baina euskal testuak ikertu nahi zituen filologoarentzat, garrantzi handikoa zen euskalkiak nahastu gabe bereiztea.

Dena den, eremu ezberdinetan iraun zuten lanean Azkuek eta Urkixok. Nahiz eta Europan zehar biak maiz ibili, Azkuek bere ikerketa eta lanetarako izan zituen hizkuntzalariekin harremanak; Urkixok ostera *Revue Internationale des Etudes Basques* aldizkarirako hizkuntzalarien kolaborazioak lortzea zuen helburu. Azkuek, euskararen katedra izateaz gain, apaizgoaren ardura ere bazeukan. Musikalari sena ere hortik zetorkion, eliz-musikarekin hasi baitzen, nahiz eta gero operagintzan ere ibili. Arlo honekin zerikusirik zeukan folklorea ere aztertu zuen, *Euskalerraren Jakintza* eta *Cancionero Popular Vasco* eman zizkigularik. Baina denen gainetik euskararen azterketa izan zen grina, hizkuntzalaritzan gramatika eta lexikografia izan zirelarik emaitzaren zutabeak. Ez dezagun ahantzi euskaltzainburua izan zela Euskaltzaindia sortu zenetik (1918) heriotzeko ordurarte, 33 urteren zehar.

Bidegileak



KOLDO ELEIZALDE
 ARTURO KANPION
 RESURRECCION M. AZKUE
 JULIO URKIXO

Urkixok Vinson, Schuchardt, Uhlenbeck, Van Eys eta beste orduko hizkuntzalarien ikerketak erakarri zizkigun *RIEV* aldizkariaren bidez, euskararekiko kanpotarren ikuspegiak altxor baliotsua bildu zuelarik. Berak ere lan sakonak eman zizkigun paremiologian, klasikoen testuak aztertuz eta argitaratuz eta gerorako utzi zuen liburutegian hamar milatik gora liburu eta dokumentu bilduz. Gabriel Maria Urkixo anaia zenaren 1906ko proiektua, hots, Euskal Akademia sortzekoa, buruturik ikusi ahal izan zuen Euskaltzaindia sortu zenean, lehen euskaltzaina eta liburuazaina izendatu zutelarik.

Nahiz eta euskararen alde bide desberdinetatik ibili, nolabait bikiak, edo bi-koitzak agertu ziren parekatuta Azkue eta Urkixo 1926an Madrileko Hizkuntza Akademiak kidekotzat izendatu zituenean. Honek adierazten diguna da kanpotik begiratuta biak izan zirela euskararen ordezkarri gailenenak.

Hau guztia eta euskararen eta euskal kulturaren bi erraldoi hauen beste anitz xehetasun ikusi ahal izango ditu gaur aurkezten diren biografiak irakurtzen dituenak. Zerbait esan nahiko nuke une honeta. Azkueren biografia idazteak ez dit lan handirik eman, lehendik argitaratua bait neukan, duela hamar urte, biografia luzeagoa. Baina uste dut Azkuek hori baino askoz ere gehiago merezi duela eta egunen batez, biografia luze eta zehatzagoa eskaini beharko dio Euskaltzaindiak omenaldi liburu mardul baten barnean. Urkixoren biografia osotzeak, ordea, ikerketa lana eskatu dit, gutxi baitzen honi buruz orokorki idatzitakoa. Honek ere biografia luzeagoa behar du, eta horretan ari naiz epe gabeko egunetan. Omenaldi gisa hiru liburukitan bildutako lanak eskaini zizkion Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartek 1949-1951 bitartean.

Atseginez burutu dudala lana aitortzea geratzen zait. Gure aurretik joan diren bidegileen aztarnak arakatzea eta jarraitzea beti da pozgarri eta, eredutzat harturik, gure eten gabeko lanaren sostengua. Baina zalantza sortzen zait une honetan: Azkue eta Urkixo, bidegileak izateaz gain, ez ote dira bideak?

PRESENTACION DE *BIDEGILEAK*:

Koldo Eleizalde y Arturo Campión

Sede, (Bilbao), 28.10.1993

Jose Javier Granja

Euskalerrriaren alde es el lema que guía la vida y la obra del polígrafo navarro Arturo Campión, el mayor de los cuatro euskaltzales homenajeados hoy y espejo para todos los vasquistas de principios de siglo que veían en él la dedicación de una vida a la política, la historia, la literatura y el euskera. Por ello no es de extrañar que cuando se crea Eusko Ikaskuntza y posteriormente Euskaltzaindia, se le otorgue la presidencia de honor al hombre que había tomado parte en todas las organizaciones vasquistas y euskerófilas surgidas en Hegoalde desde la creación de la Asociación euskara de Navarra.

Campión euskaldunberria zen, ez baitzuen euskera ikasi bere zuzenbide ikasketak Madrilén amaitu arte.

Bere lehenengo lan garrantzitsua *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra* da (1876). Madrilén idatzi eta argitaratua, Oñatiko Unibertsitatean hasitako zuzenbide ikasketak bukatu zituen lekuan. 21 urtekin, zalan-zakor ikusten dugu Campión bere zaletasun politikoetan, baina sendo, nafar foruak defendatzeko osmoan, II. Karlistadaren bukaerarekin zetorren ekaitzaren aurrean. VII. kapituluaren amaieran beste elementu bat agertzen da, euskal nortasunaren oinarritzko osagai bat bezala zabalki erabilia izango litzatekeela: hizkuntza. Ez da agertzen esplizituki esanda, baina inplizituki ondorioztatutako behar da, gaztelera sartu ez den lekua, mendia dela, hain zuzen ere. Euskera bizi den lekuan, euskal arrazaren ezaugarri positibo guztiak osorik mantentzen dira eta gaztelera alienagarri elementuarekin kontaktuan egotea da, familia, ontasuna, tradizioa, e.a... deuseztatzen dituena. Funtsean, euskal nortasunaren deuseztatpena espainol hizkuntza eta ohituren gorakadaren fruitua da. Elementu hau *La Bella Easo* (1907) edo *El último tamborilero de Erraondo* (1917) belazako idazlanetan agertzen da.

Parece que Campión dominaba el euskera ya en 1878, dos años después de haber finalizado sus estudios de derecho, como lo demuestra con la publicación de *Orreaga*, balada tradicional en dialecto guipuzcoano publicada en el primer número de la revista *Euskara*.

Animado por Luis Luciano Bonaparte se decidió a publicar y estudiar esta balada en los dialectos vizcaíno, labortano, suletino y en 18 variedades dilectales navarras. Poco después ganaría el premio ofrecido por la diputación guipuzcoana a la mejor leyenda vascongada con la titulada *Denbora anchiñakoen ondo-esanak*.

La aportación más importante de A. Campión al estudio del euskera fue la publicación de la *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* en 1884, que había tenido su precedente en el *Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara* (1884).

Campión pretendía con su *Gramática* llenar el vacío de la inexistencia de buenas gramáticas que favoreciesen el aprendizaje del idioma, aunque no se puede decir que le guiase el afán de claridad pedagógica, al modo de lo que hoy entendemos como métodos de enseñanza, sino más bien una exposición científica rigurosa.

Está convencido de que no se debe circunscribir al estudio teórico de la lengua como finalidad de la gramática, puesto que para él las lenguas eran productos espontáneos que se aprecian con exactitud contemplándolos en el libre ejercicio de su actividad.

Pero no es solamente el espíritu científico el que anima a Campión a componer su obra, ni el didáctico, sino un sentimiento de identidad nacional que adquiere en el idioma su valor más importante. Este planteamiento reivindicativo idiomático adquiere su verdadero valor en el momento en que se transforma en reivindicación nacional y rebelión contra las leyes impuestas que pretenden la abolición de la tradicional y del idioma.

Otro momento importante en la significación lingüística de Campión fue su polémica relación con Sabino Arana y con los aranistas a la muerte de aquél. El 16 de septiembre de 1901 se había celebrado en Hendaya un congreso en el que se creó la *Federación Literaria Vasca*, organización que pretendía agrupar a escritores y gramáticos de Iparralde y Hegoalde con el fin de avanzar en el camino de la unificación literaria y ortográfica. El objetivo de este congreso era sentar los principios de la unificación ortográfica del euskera.

La comisión surgida de este congreso, de la que formaban parte Sabino Arana y Arturo Campión debía avanzar en la unificación ortográfica que se aprobaría en el congreso de Fuenterrabía de 1902. Sin embargo, la intransigencia de los aranistas, que querían imponer su sistema ortográfico, propiciaría la ruptura entre los escritores de ambos lados de la frontera que continuaría hasta la unificación moderna del euskera. Campión, muy distanciado de los criterios aranistas, sufriría las consecuencias de su oposición en forma de ataques políticos que no refutaban sus criterios lingüísticos, ataques a los que no respondió políticamente Campión, sino con criterios estrictamente gramáticos o filológicos.

En relación con Euskaltzaindia, su contribución como académico en la década de los veinte estuvo limitada por su edad y su progresiva ceguera, lo que no le impidió elaborar el valioso *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera* (1922) en que propone unificar el euskera sobre la base del dialecto guipuzcoano

o del labortano o de ambos previamente combinados. Tras analizar las causas de la decadencia del euskera que atribuyen a la imitación por el pueblo de las clases altas que han abandonado la lengua, al servicio militar obligatorio, a la pobreza del vocabulario euskérico y a la multiplicidad de variedades dialectales, propone la unificación del euskera a partir de uno de los dialectos literarios vivos a cuya estructura se adaptarán algunos elementos que se tomen de los demás.

Para la ampliación de las voces propone el intercambio léxico entre los dialectos que favorezca la entrada de nuevos términos y la creación de neologismos, usando con tino y sabiduría de las casi inagotables fuentes de la composición y derivación. Así pues, entre la pura adopción de un dialecto y la creación de una lengua totalmente nueva, se inclina por la elección de un dialecto literario al que se enriquecería con elementos de otros dialectos no presentes en el elegido como modelo.

Ante la visión pesimista del Campión ya anciano sobre el futuro del euskera que resumía en su frase “Los unos se van, pero los otros no vienen”, podríamos oponer hoy más que nunca la dedicatoria de los niños de las Escuelas Vascas de Pamplona que le homenajearon en 1934 y le dedicaban una placa con la siguiente leyenda: “Batzuek ba dijoaz, bañan besteok bagatoz”.

Lo dicho hasta aquí son pequeñas calas en la obra múltiple y variada del polifacético Arturo Campión que sí en lo político fue evolucionando, su amor a la lengua y la cultura vasca le convierten en uno de los primeros intelectuales que antepuso siempre el euskera a cualquier otro elemento que definiese la nacionalidad vasca.

* * *

Perteneciente a una generación posterior a la de Arturo Campión aunque con una biografía en muchos aspectos similar a la de aquél es Luis de Eleizalde, uno de los hombres más cultos que en el comienzo de este siglo contribuyeron más a la recuperación de la personalidad vasca en sus facetas lingüística, política, literaria, educativa y euskaldunizadora. Si existe un elemento que define la personalidad vasca de Luis de Eleizalde es su amor al euskera junto con la generosidad en el trabajo para conseguir su revitalización.

En el I Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate en 1918, Luis de Eleizalde intervino para exponer su ponencia sobre la *Metodología para la restauración del euskera*, en la que su apuesta por la unificación no deja lugar a dudas.

Frente al criterio expuesto por Sabino Arana en sus *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*. Eleizalde cree que la literatura euskaldún sólo será posible por medio del euskera unificado. Observa que los dialectos se han mantenido por la falta de una literatura tradicional escrita y por el fraccionamiento político en que durante toda su historia ha vivido el Pueblo Vasco. Se impone resolver la unificación en sus aspectos dialectales, fonéticos y ortográficos, para lo cual sería necesaria la creación de una Academia al modo de la croata y seguir el

ejemplo de acción difusoria popular del idioma emprendido por la Liga gaélica irlandesa. Eleizalde creía que si uniformaba la fonética, sería fácil llegar a la unificación del léxico. Para ello se debería aplicar una fonética general a todos los dialectos, reduciendo las múltiples transcripciones dialectales.

Estas discusiones fueron las que llevaron a la sección de Lengua de *Eusko Ikaskuntza* que presidía Eleizalde a proponer la creación de Euskaltzaindia cuya necesidad apareció a todos evidente en Oñate.

Eleizalde se encargó de redactar la circular que había de enviarse a las diputaciones para presentarles el proyecto elaborado que abogaba por "la conservación, el fomento, la depuración y la difusión" del euskera, problema que parecía el más acuciante entre los que afectaban al Pueblo Vasco. Para Eleizalde el idioma vasco necesitaba salvar la distancia entre las construcciones teóricas de la lengua y el uso real de la misma. Si hasta entonces el euskera había sido objeto de estudios teóricos por parte de famosos lingüistas europeos del XIX, ahora se pretendía la restauración popular del mismo. Era necesario fomentar la instrucción popular y la literatura en la lengua propia para que dejase de ser objeto de laboratorio y se convirtiera en el nexo social peculiar del Pueblo Vasco.

Ultimados los estatutos de la nueva Academia ya a finales de 1918, sin embargo no se constituiría la comisión fundadora hasta el 21 de septiembre de 1919.

A pesar del escaso tiempo que pudo dedicar a los trabajos académicos, debido a su temprana enfermedad y muerte, Eleizalde tomó parte en las discusiones sobre ortografía vasca y tras la aprobación por Euskaltzaindia de los acuerdos sobre la materia fue el encargado de proponer a la Sociedad de Estudios Vascos que todos sus escritos fuesen redactados de acuerdo con dichas normas.

El mayor empeño de Eleizalde en materia lingüística lo constituye su constante afán por recuperar las formas verbales simples que parecían haberse perdido en la evolución de la lengua. Influida por su condición de catedrático de Matemáticas, realizó una reconstrucción de las formas verbales que creían habían existido en tiempos antiguos y debían volver a utilizarse siguiendo criterios de purismo gramatical sabiniano. En realidad, llevado del atractivo matemático que presentaba la reconstrucción de la conjugación sintética, Eleizalde no advertía que el verbo vasco se había ido transformando debido a la mayor facilidad de uso que presentaban las formas compuestas sobre las simples y a la proximidad de la conjugación de las lenguas romances.

Si la faceta del Eleizalde lingüista es importante, su verdadera vocación fue la enseñanza, a la que se dedicó profesionalmente en el instituto de Vitoria y luego como inspector de la Diputación de Bizkaia. En 1918 cree llegado el momento de promover soluciones a la escolarización en euskera siguiendo el modelo checo que propugnaba el impulso social al margen de la enseñanza oficial, anticipándose a uno de los principios básicos de las futuras ikastolas.

La enseñanza en la lengua materna es la única posible para Eleizalde que ataca constantemente a la pedagogía impuesta por la escuela estatal y la imposición del maestro que en muchos pueblos era el único que no conocía el euskera: "de ahí el gran número de analfabetos, de ahí el horror a la lectura, de ahí la

lastimosa situación de nuestros niños euskaldunes que piden pan intelectual y no reciben más que un pedrusco pedagógico”.

Tras defender que la enseñanza primaria debe ser euskaldun, porque solamente así será provechosa y útil, propone conseguir de los poderes públicos el derecho a que el pueblo euskaldun sea instruido en su propio idioma pues toda acción euskerizadora que no comience por la escuela es inútil.

En 1918 se muestra evidente la necesidad de contar con libros escritos en euskera para su utilización en la enseñanza primaria, por lo que Eleizalde llama a todos los escritores euskaldunes a preparar textos, adaptar métodos y formar maestros. Cree necesario componer silabarios, textos elementales de Aritmética, editar tratados de cosas en euskera y en definitiva obras literarias que son necesarias para que el euskera adquiera el carácter de lengua culta. Desde su participación en la Junta de Instrucción Pública y como inspector de las Escuelas de Barriada, Eleizalde no sólo impulsa múltiples iniciativas en este sentido sino que también participa activamente con su silabario *Euskeraz irakurtzeko irakaspidea* y su Aritmética en vizcaíno *Euskal-Zenbakistia*. Los avatares políticos forzaron la brevedad de esta experiencia que, acusada de nacionalista, fue prohibida en 1922, teniendo que ver Eleizalde cómo eran quemadas aquellos libros y sustituidos por otros en castellano.

Moriría poco después tras haber realizado una ingente labor como restaurador del euskera, impulsor de la enseñanza en euskera, creador de libros euskaldunes, promotor del uso social de la lengua, divulgador de las ideas religiosas y nacionalistas, publicista infatigable, en definitiva una personalidad cultural de primer orden que hoy debemos recuperar para los estudios vascos y en particular para Eusko Ikaskuntza y Euskaltzaindia.

Y por último sólo me resta agradecer a la Secretaría de Política Lingüística y a los familiares de Luis Eleizalde por las facilidades para la elaboración de estos trabajos, que además espero que tengan una continuación muy próxima.

Eskerrik asko.

BIDEGILEAK LIBURUKIAREN AURKEZPENEAN

Egoitza, Bilbo, 1993.10.28

*Mari Karmen Garmendia Lasa,
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia*

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak harreman estuak ditu Euskaltzaindiarekin joandako urteetan, bere eginkizunen artean, bete-betean sartzen baita Euskaltzaindiak bere baitan dituen eginkizunak bideratzen, horiek diruz sorosteko eta elkarlana bai Erakunde batek eta besteak aurrera eramatea. Beraz, 75. urteurreneko ospakizunetan pozik batetik parte hartzen dugu, eta bestetik, uste dut, obligazioa ere badugula gure ahalegintxoan edo gure lan apurra horretan jarri eta eskaintzeko.

Gaurko hau, lau gizon haundi, oso haundi, omentzeko ekitaldia da. Berez, gure aportazioa xumea da, baina errespetu guztiz, maitasun guztiz eta intentzio guztiz, esango nuke, egindakoa.

* * *

Bidegileak bilduma hau, oraintxe hiru bat urte hasi genuen asmo jakin-jakin batekin. Behar bada, nire maistra edo hezitzaile edo irakaslea izateak bultzaturik, garbi konturatzen nintzen guk geuk ere zer asko ez genekiela sarritan gure historiari buruz eta gure eskuetan genituen belaunaldi berriak askozaz ere, zoritxarrez, gutxiago. Eta betidanik edo aspaldidanik buru-bihotzetan neraman ideia bat gauzatzera ausartu nintzen *Bidegileak* bilduma hau sortuz eta aurrera ateraz. *Bidegileak*: gure aurretik, gu gabiltzan Herri honetan, gure aurretik, bidea egin dutenen berri jakin. Nahi baduzue, gure aldareko santuak beren lekuan jarri, beste hitzetan esanda. Eta gainera honetan, hau nire barruan nerabilkiala, oso gogoan hartu nuen zerbait irakurtzeko aukera izan nuen Israelen. Poeta judutar batek idatzia utzi baitzuen herriari buruz: "lehena ezagutu, oraina bizi eta etorkizuna eraiki".

Uste dut memoriarik gabe, herri batek, gizarte batek, ezer gutxi egin dezaketela. Eta gure kasuan, gainera, iruditzen zait gaurko lau gizon haundi hauek, erreferentzia puntu izugarriak direla gaur bizi dugun gizarte honetan eta bizi dugun egoera honetan. Batetik, Euskal Herriarekiko maitasuna eta konpromisua bakoitzak bere lekutik eta bere izaeratik eta bere jatorritik, bene-benetan bizi izan zutelako; hizkuntzaren ikuspegi erretorikorik izan ez zutelako, guztiz bestelakoa baizik. Eta gainera iruditzen zaidalako, lehen esaten nuen eskerron hori eta

errespetuzko gure hitz hau eskaintzeaz gain, belaunaldi berrien esku guztiau jartzeko obligazioa daukagulako. Aukeraren bat, laurak zaizkit benetan miresgarri, baina zerbait azpimarratu nahiko nuke gaur. Nire ikasketak, eta hau neurri batean pertsonala da, baina egin-egin nahi dut. Nire ikasketak eta prestakuntza eta lanetan zehar nenbilela, ordena honetan jakin nuen nik hauen berri:

Azkue aurren-aurrena. Urkixo segidan, Kanpion gero eta, azkenean, Luis Eleizalde. Luis Eleizalde oso berandu ezagutu dut nik, doktoradutzako tesia egiten ari nintzela, liluratuta gelditu nintzen mende honetan, batik bat gerra aurretik, ni aztertzen nenbilen eta nire munduarekin zerikusia zuen hezkuntza elebiduna edo euskarazko hezkuntzaren inguruko lanak, benetan esaten dizuet, deskubritu nituenean. Eta neurri batean haserre eta bestetik oso poztuta gelditu nintzen guztiori deskubritu nuenean. Haserre, ordurarte, ia hogeita hamar urte luze nituen garairarte, inork sekula santuan, ezer esan etzidalako, eta pozik, gure aurretik egin zuten lana ikaragarria zelako. Beraz, alderdi horretatik lan xumea da, baina esaten nizuen: maitasun guztiz egindakoa eta kontzientzia edo intenzi guztiz egindakoa, izan ere, iruditzen zait bai hezitzaileek, gurasoek gure seme-alabek, honetan dabilzten filologo ez-tiren edo ikertzaile ez-tiren guztiek jakin behar dutela zer gertatu den Herri honetan, nola egin den, zein pentsakera diferentetako eta jatorri diferentetako jendeak helburu bakar batekin lan egiteko gaitasuna eta kapazitatea izan duen. Beraz, uler ezazue sentidu horretan, gure gaurko aurkezpen eta aportazio hau. Garai zailak datoz, diruz urri gabiltza eta benetako zailtasunak izango ditugu *bidegileekin* aurrera jarraitzeko. Hala ere, besterik ezpada paper birziklatuan, orain esaten den bezala, nik uste dut, jarraitu egin behar dugula, ze pena ikaragarria emango lidake hasitako bide hau etenda uzteak eta, oraindik ere, eginkizun asko eta handia dago hau, ondare hau, ondorengoen esku ez jartzeak.

* * *

Bidegileak es una colección sencilla de divulgación, no es para especialistas, investigadores universitarios, aunque también creo que puede servirles, de divulgación hecha con muchísimo amor, con muchísimo cariño, pero además con una clara intención que queda resumida en las palabras que tuve ocasión de leer en Israel y que me impactaron profundamente, y que daban forma a algo que yo venía sintiendo desde hace muchos años. Un poeta judío dejó escrito, respecto del pueblo judío de Israel: "conocer el pasado, vivir el presente, construir el futuro". Y creo que, en todo momento, pero más en unas circunstancias como las actuales, es un sinsentido ofrecer a las nuevas generaciones, a nuestros hijos, a nuestros nietos, elementos culturales sin puntos de referencia. Cuando digo puntos de referencia, en este caso, me estoy refiriendo concretamente a las grandísimas cuatro personalidades que hoy presentamos. Con todo respeto, y además con la sanísima intención y obligación de que podamos tener conocimiento de lo que hicieron los que pasaron antes que nosotros por esta tierra y por esta vida, por eso: *Bidegileak*. Espero que esto no sea sino un hito y esto que estoy diciendo ahora, tenga continuidad, vaya desarrollándose y seamos capaces de transmitir y de dar y de donar a los que vienen detrás de nosotros todo este patrimonio humilde en algunos aspectos, pero enormemente rico en otros que

tenemos, como Euskal Herria. Las cuatro personalidades que hoy presentamos yo los fui conociendo no a la vez, sino paulatinamente, a medida que me iba haciéndome un poco mayor y además a medida que iba profundizando mis estudios. Las cuatro son, de verdad, extraordinarias. Pero quiero subrayar algo, probablemente, porque es quizás el aspecto menos conocido de lo que presentamos hoy. Primero conocí a Resurrección M.^a de Azkue: la *Morfología vasca* como me imagino que a tantos otros primero vino a mis manos, después vino Arturo Campión, un poco más tarde Julio de Urquijo y a Luis de Elizalde lo descubrí cuando estaba preparando mi tesis doctoral: leyendo, recogiendo papeles, excarvando aquí y allá... porque mi tesis doctoral versó precisamente sobre las ikastolas y la educación bilingüe en Euskal Herria.

Por una parte me llenó de dolor el descubrir que no supe hasta muy tarde casi nada de lo que se había hecho hasta entonces, no supe nada de Luis de Eleizalde y no supe tampoco apenas nada de otras grandísimas personalidades como Miguel Alzo u otras que trabajaron antes que nosotros en algo que nosotros hemos estado haciendo en estos últimos años. Luis de Eleizalde utiliza una expresión francesa, tuvo planteamientos que los franceses denominan: "avant la lettre". Lo digo con toda sinceridad. Cuando Fishman, Augen, Heinklos y tantos grandes sociolingüistas están hablando en estos últimos años desde el final de la década de los cincuenta (50), de dos conceptos que ya son universales en sociolingüística.

Como la *planificación del corpus de la lengua* y la *planificación del status de la lengua*, Luis de Eleizalde, en 1918, en Oñati pronunció una conferencia en la que dice: "Hay que plantearse seriamente la restauración literaria de la lengua" que no es más que el corpus de la lengua; y habla, con enorme profundidad, de la restauración social de la lengua y de la política lingüística que hay que llevar a cabo para lograr ambos objetivos. Por esa razón las cuatro grandes personalidades las debemos colocar entre nuestros *Bidegileak*; pero permítanme, por la parte que me toca, de maestra, de educadora, de profesora y en estos momentos de responsable de la Política Lingüística del Gobierno Vasco, poner el acento en esta faceta desconocida por nosotros hasta hace muy poco tiempo todavía, de la reflexión sobre la normalización lingüística, que ya había sido hecha, como digo, en el año 1918.

Espero que *Bidegileak* pueda seguir, a pesar de las dificultades con las que nos encontramos, aunque sea de otro modo, más humilde todavía, pero con toda la dignidad que podamos tener para seguir adelante y espero también que los profesores, los maestros, los periodistas tengan en cuenta cuáles son los elementos que completan este patrimonio, que como Pueblo Vasco tenemos, y lo divulguen.

Eskerrik asko.